

## ● BALIO PROPOSAMENA ETA IDEIA:

Gure ideia kaleko artistak kontratatzea errazten duen **aplikazio** bat sortzea da eta horrela arazo sozial partikular bati erantzutea, helburu nagusi gisa. Hau da, edozein pertsonak **ekitaldi** edo **ospakizun** batean artista bat kontratatzeko aukera eman edo erraztu nahi dugu.

Zein izan zen ideiarene jatorria? Eskolako jaialdirako ikuskizun bat behar genuen, baina ez genekien nola kontaktatu edo nola bilatu artista bat, beraz taldeko kide batek gure arazoa zena eta beste hainbatek izan eta izango duten arazo berari erantzuteko zerbait egin behar genukeela esan zuen. Hori dela eta, pentsatzen hasi ginen eta aplikazio bat sortzea erabaki genuen, VA (Viae Artifices) deituko den aplikazioa. Artista eta kalearekin lotura duen izen bat nahi genuen; hortaz, taldekide bat latineko entziklopedia eskuan zuela, hitz hauek bilatu eta berehala Viae Artifices izena deskubritu genuen. Latinezko bi hitz dira eta euskaraz **kaleko artistak** esan nahi du. Taldeko 5 kideok atsegin genuela ikusita, izenarekin aurrera jarraitu genuen.



Aplikazio honetan, kaleko **artista** edota artista ezezagun ezberdinak aurkitu ditzakegu; prezio ezberdinekoak eta genero ezberdinekoak, eta kontratatu nahi dituztenek, hau da, bezeroek, bilaketa-iragazkietaz baliatu daitezke haiek nahi duten artista bilatzea errazagoa izan dadin. Ildo beretik, artistei lana bilatzea ere erraztuko diegu, izan ere, haiek egin beharko duten bakarra aplikazioan arte zerbitzu bat argitaratzea izango da, beraiek eskaitzen dutenaren deskribapena eginez, eta noski, prezioarekin.

Proposatzen dugun balioa hurrengoa da: Artista kaletar edota ezezagunak diren artistentzat ezagutzera ematea ez da batere lan erreza. Gure app-ak hau aldatu dezakeela uste dugu. Artista hauek Viae Artificesen beraien iragarkia argitaratuz, eskaintzen duten artea interesatzen zaion bezero batek kontratatu ahal izango du. Horrela, bi aldeetan dago izabazia: Bezeroak nahi duen zerbitzua eskuratu dezake eta artistak diruataz aparte ama ere irabaziko du.



Gure enpresak balio kualitatiboa eskaintzen du, izan ere, guk eskainiko duguna zerbitzu bat delako, eta hori esker, onura sozial bat ere garatzen dugu. Azken kontsumitzaileek behar edo falta bat asetzen dute gure enpresari esker, bestade, artistei lana bilatzen edota lan gehiago izaten laguntzen diegu.

Bezeroarentzat balorea sortzen duten elementuen artean, **nobedadea edo berrikuntza** dago. Nobedadearekin aurrez existitzen ez diren beharrianak asetzea dugu helburu, hau da, aplikazio berritzaile bat sortu dugu artistengan soilik zentratzen dena eta interesa duten bezeroen bitartez, kaleetatik kanpo lan egin ahal izango dute hauek. Bestalde, gure bezeroek era errazago batean aurkitu ahal izango dituzte artista ezberdinek eskaintzen dituzten

zerbitzuak, beraz, eskuragarritasun bat ere badago balio elementuen artean. Artista horiei ikusgarritasuna ematea bilatzen dugu eta hori da, hain zuzen ere, bereizi eta garrantzitsu egiten gaituena.

Ildo beretik, zerbitzua bezero baten edo bezero segmentu baten berariazko beharretara egokituz sortzen da balioa. Gure aplikazioa aukeratzen duten bezeroek artistak bilatzeko erraztasuna izango dute. Gure App-a erabiltzeko oso ulergarria izango diren jarraibideak izango ditu, hau da, aplikazioa oso modu antolatuan egingo da, edozein eragiketa oso erraza eta eroso izan dadin eta edozein pertsonak erabili ahal izateko.

Aplikazio honen bitartez bezeroek gu bitartekari bezala edukiko gaituzte, erdiko prozesuak errazagoak izateko. Haien eskaerak asetuko ditugu eta, bezeroaren arteko kontaktua lortuko dugu.

